

BERMEO. Proiektuaren nondik norakoak 2003ko maiatzarako zehaztuta egongo dira

Portuko obrak lotzeko bidean

Eusko Jaurlaritzaren eta Bermeoko Udala Itxas-gora egitama garatzen hasiko dira, laster

Iratxe Astuy

PROIEKTUA

Portuko egitaman garatuko dan lehen zatia, portu zaharra, Frantxua eta Nortako moileari jagokona izango da

Bermeoko portu zaharraren garapenarako aurkeztu ziran lau proiektuetatik, Itxas-gora ize-nadunak irabazi eban igezko ideien lehiaketea. Egitemu hori martxan ipini beharra dago orain; baina, aurretik, proiektuan proposatutako ideiak behar moduan lotu behar dira.

Asmo horren barri emoteko, Bermeoko alkatea Juan Karlos Goienetxea eta Eusko Jaurlaritzako Herrilan eta Portuetako sailburu Alvaro Amann alkartu ziran, atzo eguerdian, Bermeon. Egitemuaren nondik norakoak gaineratik azaldu eta gero, lankidetzaz hitzarmen antzerako idatzia sinatu eban uriko alkateak eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak. «Idatzi hau sinatzean, portuaren egitama urterako lehen pausua emoten gabiltz», azaldu eban sinaduren testigu izan zan Alvaro Amann sailburuak.

Bermeoko portuaren garapenarako Itxas-gora proiektua luze eta zabala da. Hori dala ta, zatika hasiko da Eusko Jaurlaritzaren proiektua garatzen. Izan be, obrak hasi baino lehen, egita-

man agertzen diran ideiak noraino garatu leitezkan ikusi behar da. «Behar batzuk arazo bari garatu daitezke. Beste obra batzuk egin ahal izateko, barriz, aldaketak egin beharko doguz urigintza arloan», azaldu eban Juan Karlos Goienetxea Bermeoko alkateak.

Itxas-gora proiektua zehazteko batzordea eratuko dabe

Itxas-gora proiektuaren ganeko zehaztasunak lotzeko, batzorde bat eratuko dabe. Gabonetako oporraldia amaitu eta segiduan hasiko da talde hori beharrean. Bost hilabeteko epealdian, behin betiko egitama osotu beharko dau batzordeak.

Hasteko, portu zaharra, Frantxua eta Nortako moileari jagokon proiektuaren zatia garatzen



IRATXE ASTUY

Itxas-gora proiektuaren ganeko idatzia sinatu eban, atzo, Udalean.

hasiko da batzordea. «Datorren urteko maiatzarako ondo lotuta egon behar da proiektua», aurreratu eban Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, atzo, Bermeon.

Bermeoko portuan egiteko aurreikusita dagozan obren adjudikazioa, bestalde, 2004. urterako egitea itxaroten dabe Eusko Jaurlaritzako ordezkariak. Izan be, Portuen Sailatik

urtengo dau obrak egiteko dirua. 2004rako aurrekontuan, Bermeoko portuan emoteko diru zati bat gorde dabe.

Itxas-gora egitama arbera, Frantxua aldean hondartzea egin gura dabe. Proiektua bere bidetik badoa, hondartzeaz ganera, bainuetxea eta hotela eregi leuekiez portu zaharraren albokoleku horretan.

GERNIKA-LUMO. Etxeko karakol kazolen lehiaketea be egin eban, domekan



IRATXE ASTUY

Meabenak izan dira Euskadiko karakolik gozoenak

Fikako Txomin Meabek irabazi eban, joan dan domekan, Gernika-Lumon egin eban Euskadiko XXVI. Karakol Txapelketea. Meabek 150 euro, txapela eta sari berezia eskuratu ebazan Euskadiko karakolik gozoenak egiteagaitik. Bere atzetik, Algortako Itzartu taldea eta Gernikako Javier Landa geratu ziran. Euskadiko txapelketea ez eze,

etxeko karakol kazolen lehiaketea be egin eban, domekan, Gernikan. Etxean eginiko karakolik gozoenak Gorka Lorenzok aurkeztu ebazan. 60 euro, txapela eta sari berezia hartu ebazan Lorenzok. Guztira, 80 lagunek hartu eban parte lehiaketa bietan. Sarien banaketea amaitu eta gero, saldu be 50 euroan saltzen ebilen karakol kazolak.

MUNDAKA. Domekan, hilak 7an, egingo dabe

Oiloak ekarri ebezan baserritarrek plazara

I.A.

Polito ebulan jendea Gernika-Lumoko atzoko merkatu plazan. Gabon gaueko afaria eta Natibitxate eguneko bazkarirako erosketak egiten ebilen asteleheneko plazara bertaratu ziran gehienak. Beraz, salmentak be polito joan ziran atzo goizean.

Merkatuko produktuaren artean, oiloak agertu ziran atzokoan. Baserritarrek ekarri ebezan oiloak Gabonetarako saltzekotan. Baserriko oiloa sei euroan saldu eban kilo, atzoko plazan.

Karakolen salneurriak be eban jarraitzen dau. Joan dan astean moduan, karakol kilo hamabi euroan emon ebezan baserritarrek, atzo.

Gabon madariari jagokonez, barriz, hiru euroan karotu da kilo, joan dan asterik hona. Hilaren 16an, gabon madari dozeena zazpi euro-

AGENDEA

OLENTZEROA HERRIZ HERRI

Bermeo: Arratsaldeko 18:30etatik aurrera ibiliko da, herriko kaleetatik zehar. Euskeraz Berbetan taldeak atonduko dau Olentzeroaren ibilaldi.

Busturia: Olentzeroa San Kristobal auzoan agertuko da, 16:30ean. Udalerriko txoko gustietatik ibiliko da, bere ibilaldia Axpe auzoan amaituz. Irrintzi Alai taldearen eskutik izango da.

Forua: Arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara bitarte gaztain banaketea egingo dabe Joan Mari Torrealde kultur etxean. Forutarrek 18:00etan emongo deusie Olentzeroari ondoetorria

Gernika-Lumo: Lumotik jeitsiko da Olentzeroa, arratsaldeko 18:00etan. Herrira heltzen danerako Udetxea Jauregian egingo deutse harrera ofiziala. Olentzeroaren ibilaldia Foru Plazan egingo daben jaialdiagaz amaituko da.

Ajangiz: Iluntzeko 19:00ak aldera helduko da Olentzeroa, Ajangizera...

BERMEO

Meza: Izaro abesbatzak meza abestua eskianiko dau, bihar, San Frantzisko elizan. Meza abestua 11etan izango da.

GERNIKA-LUMO

Truke-azokea: leup! gazte taldearen truke-azokea goizeko 10:00etatik aurrera. zabalduko dabe, merkatu plazan.

BUSTURIA

Futbola: Kanbodia-Nigeria partidua jokatuko da, bihar, Itxas adar zelaian. 11:00etan izango da futbol partidua.

Egutegien banaketea: Datorren urterako egutegiak banatzen ibiliko dira, goiz guztian, Kultur Etxean.

Erakusketea: Lide Kaltzadaren erakusketea inaugurauko dabe, bihar.

an emoten ebilen bitartean, atzoko merkatu plazan hamar euroan saldu ebezan. Kontutan euki behar da merkatu plazan Gabonetarako erosketak egiteko azken egunaz zala atzokoa.

Intxaurrak eta urretxak

Frutu sikuak aurreko astean baino gitxiago saldu ebezan. Halandabe, intxaurrak eta urretxan prezio bardienean mantendu dabez baserritarrek. Intxaurren kilo 4,5 euroan dago, eta urretx kilo, 3 euroan.

Urteko sasoi honetan ondo saltzen diran beste frutuak kiwiak izaten dira. Tamaina eta kalitatearen arabera lotzen dabe baserritarrek kiwiaren prezioa. Atzoko merkatu plazan, 60 zentimo eta 1,99 euro bitartean emoten ibili ziran kiwiak. Kipula zientua, bestalde, 2,5 euroan saldu eban.